

# Irakasleen eskuliburua

## EAEko irakaskuntza publikoa 2025-2026

(2026ko urtarrilan eguneratua\*)

---

\* Kontuan hartu lan-baldintzetan  
aldaketak egon daitezkeela.  
Kontsultatu azken bertsioa hemen:



2025eko maiatzaren 9ko  
lan-akordioan oinarrituta



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)



## Irakasleen eskuliburua

EAEko irakaskuntza publikoa  
2025-2026 (2026ko urtarrilan eguneratua\*)

\* Kontuan hartu lan-baldintzetan aldaketak egon daitezkeela  
2025eko maiatzaren 9ko lan akordioan oinarrituta

### Aurkibidea

- 3** | Jardunaldi mota desberdinen ordu-banaketa
- 4** | Ordu-banaketa Lanbide Heziketako ordezkapenetan
- 8** | Baimenak eta lizentziak
- 10** | Senideen gaixotasun larri edo heriotzagatiko lizentzia
- 10** | Odol-ahaidetasunaren organigrama
- 11** | Eszedentziak eta Zerbitzu bereziak
- 12** | 8 asteko guraso baimena (ordaindugabekoak)
- 13** | Gurasotasun-lizentzia
- 14** | Gurasotasun-lizentzia eta gero, zer?
- 16** | Haurdunaldia
- 16** | Erditzeko unea
- 17** | Zer egin lan-istripu baten aurrean
- 18** | Adinagatiko irakastorduen murrizketa
- 20** | Nominak: 2025-2026
- 22** | Lotura interesgarriak

## Jardunaldi mota desberdinen ordu banaketa

### Haur eta Lehen Hezkuntza

Lanaldi mota	Ordu kopurua guztira	Irakastorduak (atsedenak barne)	Osagarriak	Gutxienez astero joan beharreko egunak
Osoa	30	22	8	5
Bost seiren	25	18	7	5
Bi heren	20	15	5	5
Erdia	15	11	4	4
Herena	10	7	3	3

### Bigarren Hezkuntza

Lanaldi mota	Ikastetxeari arreta zuzena **	Ikastetxean gutxienez egon beharreko orduak	Zuzeneko irakaskuntza-orduak *** (zaintzak kanpo)	Osagarriak ****	Gutxienez astero joan beharreko egunak
Osoa	30	23	17*	6	5
Bost seiren	25	19	14-15	4-5	5
Bi heren	20	15	11-12	3-4	4
Erdia	15	11	8-9	2-3	3
Herena	10	8	5-6	2-3	2

Oharra: lanaldi mota guztietan berdin puntuatzen da.

\* Esparruka, proiektuka eta ikasgelan berrikuntza-proiektuetan lan egiten duten irakasleentzako irakaskuntza orduen murrizketak jasoko dira. Murrizketa horiek gutxienez irakastordu batekoak izango dira.

\*\* 7 ordu hauek (30 izan arte) ez dira zertan presentzialak izan, salbu eta jarduera batek zenbait unetan hala eskatzen duenean: Ikastetxearen proiektuak, bilerak, formakuntzak, koordinazio-bilerak, mailako irakasle tutoreen eta ikastetxeko orientazio-taldearen arteko bilerak, klaustroa, batzorde pedagogikoa, eskola-kontseilua, ebaluazio-bilerak, jarduera osagarriak.

\*\*\* Curriculuma zuzenean ematea, banakako edo taldeko tutoretzak, Hezkuntza Sailak onartutako hezkuntza-errefortzua edo berariazko programak edota neurriak.

\*\*\*\* Osagarriak: zaintzak (2 ordu gehienez), 2 ordu astean familiei arreta emateko eta orientazio- edo tutoretza-lanak egiteko, astean ordubete, departamentuko bileretarako edo koordinazio pedagogikorako, ordu 1 astean etengabeko prestakuntzarako.

## Lanbide Heziketa

Lanaldi mota	Ikastetxeari arreta zuzena	Ikastetxean gutxienez egon beharreko orduak	Zuzeneko irakaskuntza-orduak (zaintzak kanpo)	Osagarriak	Gutxienez astero joan beharreko egunak
Osoa	30	23	17	6	5
Bost seiren	25	19	14	5	5
Bi heren	20	15	11	4	4
Erdia	15	11	8-9	2-3	3
Herena	10	8	5-6	2-3	2

### Ordu-banaketa Lanbide Heziketako ordezkapenetan

LHko 03/2022 Lege Organikoaren arabera, eskola orduen zenbaketa honela egingo da.

1. mailako ikasleak 30 aste egongo dira klasean, eta beste 3 enpresetan (3 aste = 15 lanegun).
2. mailako ikasleak 21 aste egongo dira klasean, eta beste 12ak (12 aste = 60 lanegun) enpresetara joango dira.

Lege berriarekin hainbat klase ordu ez dira emango ikasleak praktiketara joango direlako. Orduan, ikastetxeetan ordu horiek beste irakasgai berri batzuk emateko erabiliko dira.

Azpiko taulan, JIMV ezberdinetatik ateratako informazioarekin taula bat osatu dugu, LHko Osasun eta Laguntza Prozedurak (1567) espezialitatekoa.

Kod.	Lanbide modulua	Iraupen osoa	Or / Aste (LPZ)	
			1. Maila 33 Aste	2. Maila 21 Aste
0054	Osasun zuzkidura (OZ)	132	4	
0055	Hasierako osasun-laguntza larrialdi-egoeretan (ASISE)	231	7	
0057	Pazienteak ebakatu eta lekualdatzea (PEL)	231		7
1708	Produktzio-sistemari aplikatutako iraunkortasuna (PSAI)	42		2
1664	Produktzio-sektoreei aplikatutako digitalizazioa (EM)	60	2	
0020	Lehen laguntzak (LELA)	66		2

Demagun, ikasturte hasierako esleipenean (IKHA/COCU) zein ordezkagunean, LHko Osasun eta Laguntza Prozedurak (1567) espezialitateko jardunaldi osoko lanpostu bat honela eskaintzen dela:

0054 OZ 4 ordu (1. maila); 0055 ASISE 7 ordu (1. maila); 0057 PEL 4,45 ordu (2. maila); 0020 LELA 1,27 ordu (2. maila) GUZTIRA = 16,98 ordu.

Nola banatuko dira ordu horiek ikasturtean zehar? (edo nola moldatzen dira JIMVan zehazten diren orduak lanpostuan eskeintzen direnetara?). Hona azalpena:

■ 0055 ASISE, 1. mailako irakasgaia izanik (irailetik ekainera, 33 astetan -3 ebaluaziotan-zehar emango da).

231 ordu / 33 aste = 7 ordu (ikasleek beraiek jasoko duten ordu-kopurua, Or/Irakasle (LPZ) zutabea agertzen den bezala).

■ 0057 PEL, 2. mailako irakasgaia (21 astetan zehar emango da, bi ebaluaziotan).

231 ordu / 21 aste = 11 ordu klasea eman beharko liriteke astean irailetik otsaila bitartean.

Baina irakasgai honetan Or/Irakasle zutabe horretan 7 ordu jartzen du. Hau da ikasleek astero 7 ordu jaso behar dituzte.

11 ordu (eman beharrekoak) - 7 ordu (benetan emango direnak) = 4 ordu astean ez dira emango, "galduko" dira.

Benetan emango diren orduak: 21 aste x 7 ordu = 147, beraz eman beharko liritekeen 231 - benetan emango diren 147 = 84 ordu ez dira emango, "galduko" dira.

Beraz, lanpostuak perfilatzeko momentuan irakasgaiaren ordu esleipena ez da 7 ordu, baizik eta 4,45 (Eman beharreko orduak: 231 - emango ez direnak: 84 = 147; 147 / 33 aste ikasturteko = 4,45) nahiz eta 7 klase ordu eman astero.

Edo kalkulatzeko beste era bat aplikatuz, 84 ordu ez dira emango; 84 / 33 aste ikasturteko = 2,54 ordu ez dira emango astero; 7 - 2,54 = 4,45 ordu zenbaketarako.

■ 0020 LELA, 2. mailako irakasgaia (21 astetan zehar emango da, bi ebaluaziotan).

66 ordu / 21 aste = 3,14 ordu klasea eman beharko liriteke astean irailetik otsaila bitartean.

Baina irakasgai honetan Or/Irakasle zutabe horretan 2 ordu jartzen du. Hau da ikasleek astero 2 ordu jaso behar dituzte.

3,14 ordu (eman beharrekoak) - 2 ordu (benetan emango direnak) = 1,14 ordu astean ez dira emango, "galduko" dira.

Benetan emango diren orduak: 21 aste x 2 ordu = 42, beraz eman beharko liritekeen 66 - benetan emango diren 42 = 24 ordu ez dira emango, "galduko" dira.

Beraz, lanpostuak perfilatzeko momentuan irakasgaiaren ordu esleipena ez da 2 ordu, baizik eta 1,27 (Eman beharreko orduak: 66 - emango ez direnak: 24 = 42; 42/33 aste ikasturteko = 1,27) nahiz eta 2 klase ordu eman astero.

Edo kalkulatzeko beste era bat aplikatuz, 24 ordu ez dira emango; 24 / 33 aste ikasturteko = 0,73 ordu ez dira emango astero; 2 - 0,73 = 1,27 ordu zenbaketarako.

Goian aipatutako kalkulu hauek dira moduluek dauzkaten ordu esleipenak frakzioekin azaltzearen zergatia.

Adibideari jarraituz, lanpostu hau 3 ebaluaziotan zehar honela banatuko da:

Modulua	1. hiruhilekoan	2. hiruhilekoan	3. hiruhilekoan
OZ	4 ordu	4 ordu	4 ordu
ASISE	7 ordu	7 ordu	7 ordu
PEL	7 ordu	7 ordu	0 ordu
LELA	2 ordu	2 ordu	0 ordu
<b>Guztira</b>	<b>20 ordu</b>	<b>20 ordu</b>	<b>11 ordu</b>

Plaza honen titularrak baja, lizentzia edo baimenen bat hartuz gero, haren ordezkoa ikastetxera heltzen denean, zer egiten da? Ebaluazioaren arabera eta ordezkapenaren iraupenaren arabera, era ezberdinetan kudeatzen da:

### 1. Ordezkapenaren iraupena aurreikusten denean

Demagun lanpostuaren titularrak 6 hileko ikasketa baimen bat, Irale bat... hartu duela. Kasu horretan:

■ Ordezkapena lehen edo/eta bigarren ebaluazioan gertatzen bada:

Lanpostu horrek astean 20 irakastordu izango ditu. Jardunaldi osoa 17 irakastordutakoa denez, ikastetxeak ordu gehigarri horiek kentzeko eskatu ez badu, ordezkoak eskatu beharko luke. LHn, moduluak zatitu ezin direnez, ondorengo bi aukerak suerta daitezke:

0055 ASISE 7 ordu; 0054 OZ 4 ordu; 0057 PEL 7 ordu; 0020 LELA 2 ordu (GUZTIRA = 20 ordu).

Modulua	A ordezkoak	Modulua	B ordezkoak
ASISE	7 ordu	OZ	4 ordu
PEL	7 ordu		
LELA	2 ordu		
<b>Guztira</b>	<b>16 ordu*</b>	<b>Guztira</b>	<b>4 ordu*</b> (jardunaren herena)
# 20 orduen banaketa = 16 + 4			

Laburbilduz, lanpostu honen ordezkapena egiteko Hezkuntzak bi irakasle izango ditu kontratatuta:

- Jardunaldi osoko irakaslea (16 irakastordu).
- Jardunaldi hereneko irakaslea (4 irakastordu).

■ Ordezkapena hirugarren ebaluazioan gertatzen bada:

2. mailako ikasleak praktikak egiten daudenez eta klase orduak murriztu direnez, ordezkoak 1. mailako moduluak besterik ez ditu izango (ASISE: 7 ordu) eta, ondorioz, 7 irakastordu izango ditu, 7 irakastordu ez da heren bat, hortaz aukera posible bi daude: jarduna erdira emendatzen zaio ikastetxean bertan sortu ahal diren orduekin, edo behin ordezkapena bukatuta, egin dituen ordu extrekin kontratua luzatuz.

## ■ Ordezkapena hirugarren ebaluaziora ere luzatzen bada:

Jardunaldi herenean dagoen ordezkoiari (B ordezkoa) kontratua etengo zaio eta jatorriz osoan zegoenari kontratua aldatuko zaio, jardunaldi murriztura pasatuz\*\*.

## 2. Ordezkapenaren iraupena aurreikusten ez denean

Kasu horretan, ordezkoak dituen irakastordu guztiak eman beharko ditu ordezkapenak irauten duen tartean.

Gure aurreko adibidean, demagun ordezko batek 20 irakastordu dituen ordezkapen bat burutzen duela 7 asteetan zehar.

Denbora horretan 3 ordu gehigarri ( $20 - 17 = 3$ ) egin dituenek aste bakoitzean, guztira 21 ordu gehigarri egin ditu lan (3 ordu gehigarri asteko x 7 asteko lana). Orduan behin ordezkapena bukatu zaiola administrazioak aste bat eta bi egun kontratu bat egingo dio ordezko horri ( $21 \text{ ordu} / 17 \text{ ordu} = 1,23 \text{ aste}$ ;  $0,23 \times 7 \text{ egun} = 1,61 \rightarrow 2 \text{ egun gehiago}$ ), zeinetan lanik egin ez arren, kotizatu, puntuatu eta kobratu egingo duen. Behin aste hauek bukatuta, ordezkaguneari parte hartu ahal izango du.

Kasuistika oso zabala izan daiteke, plazak astean 18, 19, 20, 21, 22, 24 edo 25 ordu izan baitezake. Ikastetxetik aukera ezberdinak eskaini ahal dizkiote ordezkoiari. Legez, modulu banaketaren onarpena, ikastetxeko zuzendaritzak egin behar du.

Kasua edozein izanik ere, jakizu eskubidea duzula klaseak 17 ordura arte baino ez emateko (hala baitago araututa, ikasturte hasierako ebazpenean). 17 irakastorduz baino gehiago aritu bazara lanean, Hezkuntzan erreklamazioa jartzea gomendatzen dizugu, zure eskubidea baita.

Deitu **STEILAS**era, zure kasu partikularra aztertu eta orduak nola bana ditzakezun azalduko dizugu (betiere ikastetxeak aurreikusi eta gauzatu ez badu).

---

\* Jardun osoari 17 ordu dagozkionez eta herenari 5 irakastordu dagozkionez, 16 eta 4 ordu horiek beste ordu batekin osatuko dira ikastetxean.

\*\* Pertsona horrek kontratu-aldaketari uko egin ahal izango dio, baldin eta birbaremazioetan lanaldi osoetan SOILIK izena eman badu. Kontuz!! Ordezko araudi berriarekin aldaketak egon daitezke atal honetan.

## Baimenak eta lizentziak

Taulan azpimarratuta agertzen diren baimenek eta lizentziek, gutxienez 10 laneguneko eta gehienez hilabeteko aurreabisua exijitzen dute.

Baimenak eta lizentziak	Art	Nork	Iraunaldia	€	Eskaera
Gaixotasuna edo istripua	31	KPBO	Medikuaren alta-agiria izan edo kontratua amaitu arte.	Bai	E
Gurasotasuna	32.a*	KPBO	19 aste (2 aste gehiago borondatezko 11 asteak jarraian hartzen badira). Ume jaioberria ezgaitua bada beste 2 aste edo erditze anizkoitza izan bada (bi aste gehiago seme-alaba bakoitzeko). Kontsultatu 13. orrialdea.	Bai	T
Adopzioa	32.b	KPBO	19 aste (2 aste gehiago borondatezko 11 asteak jarraian hartzen badira). Beste 2 aste bigarren umeagatik edo ume jaioberria ezgaitua bada. Adopzioa nazioartekoa bada, bidaiaren egiteko, 2 hilabete arteko baimena.	Bai	T
Edoskitzea	32.c**	KPBO	Egunero ordu bat, haurrak 12 hilabete izan arte. Orduak meta daitezke: 6 ordu = egun bat. Proporzionalki luzatuko da erditzea multiplean denean. Kontsultatu 14. orrialdea.	Bai	T
Zortzi asteko gurasotasuna	32.d	KPBO	Zortzi aste, adingabeak 8 urte bete arte. Jarraian edo etenekin hartu (gutxienez asteka).	Ez	T
<u>Ezkontza/Bikotetza</u>	33.1	KPBO	20 egun natural, ezkontza-eguna barne. 6 urtetan ezin da berriz eskatu.	Bai	E
<u>2. mailara arteko senideen ezkontza</u>	33.2	KPBO	Egun natural bat (+2 egun natural, 150 km baino urrunago ospatzen bada).	Bai	E
Senideen gaixotasun larria edo heriotza	34***	KPBO	5/2023 Errege Lege Dekretuak. Kontsultatu 10. orrialdea.	Bai	E
Senideen gaixotasunagatik jardunaldia murriztea	35	KPBO	1. mailako senideak zaintzeko, baita urrunagoko mailakoak harekin biziz gero, lanaldia 1/2 bat edo 1/3 bat murriz daiteke, gehienez hilabete batez.	Bai	E
Nahitaezko betebeharrak	36	KPBO	Behar den denbora (lanorduetatik kanpo edo bitarteko telematikoen bidez egiterik ez badago).	Bai	Z
<u>Etxebizitzaz aldatzea</u>	37	KPBO	Bi lanegun (errolatze-egunetik 15 egun naturaleko epean).	Bai	E
Ordezkaritza sindikala edo langileena	38	KPBO	Legediaren arabera.	Bai	Z
Indarkeria matxistaren biktima	39	KPBO	Osasun- edota gizarte-zerbitzuek zehaztutakoaren arabera.	Bai	T
<u>Azterketak</u>	40	KPBO	Azterketaren eguna (2 egun, 150 km baino urrunago bada).	Bai	E
Administrazioaren barne-promoziorako probak	41	KP	Behar den denbora.	Bai	E
<u>Adingabeak, ezgaituak, edo 2. mailara arteko senideak zaintzea (baita urrunagoko mailakoak harekin biziz gero)</u>	42	KPBO	Lanaldiaren 1/3 edo 1/2 murrizketa, adingabeak 12 urte bete arte.	%	E
Minbizia edo gaixotasun grabea duten adingabeak zaintzeko baimena	43	KPB	5/2015 Errege Dekretua. Gutxienez lanaldiaren 1/2 murriztu daiteke eta gaixoak 18 urte bete arte (kasu batzuetan 23 urte arte).	Bai	T
Gaixotasun kronikoak edo mugitzeko arazoak dituzten 2. mailara arteko senitartekoak zaintzea (urrunagoko mailakoak harekin biziz gero)	44	KPB	Gehienez 2 ordu egunean, lanaldi hasieran edo bukaeran. 50 ordu ikasturteko, gehienez ere. Salbuespen gisa metatzeko aukera (zuzendaritzaren onespenerekin). Egunduan osoetan metatuz gero, ordezkatua.	Bai	E
Lanpostuarekin erlazionaturiko ikasketak	45	K	Baimen kopurua mugatua.	Bai	T
<u>Beste ikasketa batzuk</u>	46	K	Ikasturte bat (irailaren 1etik abuztuak 31ra). Salbuespen gisa 2. ikasturtea luzatzeko aukera.	Ez	T

Baimenak eta lizentziak	Art	Nork	Iraunaldia	€	Eskaera
Medikuarenera joatea	47	KPBO	1) Langileak gehienez lau ordu. 2) Umea jaiotze aurreko azterketetara joateko (baita bikotekideak ere). Erditzea prestatzeko, astero 4 ordu. Adopzio, harrera edo adopzio-helburuko zaintza kasuetan ere. 3) Adin txikiko umeak mediku kontsultara edo larrialdietara eramateko (gehienez 4 ordu egunean).	Bai	Z
Odola edo odol-osagaiak ematea	48	KPBO	Behar-beharrezkoa den denbora soilik.	Bai	Z
Hitzaldi, kongresu eta abarretara joatea	49	KPBO	Behar den denbora, 5 egun arte.	Bai	I
Hautapenezko karguaren betebeharrak	50	KPB KPB KB	Urteko ordutegiaren %10 gehienez ere. Lanaldiaren murrizketa bosten batean. Lanaldia herenean murriztu. Lanaldia erdian murriztu.	Bai % %	E
<u>Goi-mailako kirolariak</u>	51	KPBO	Lehiaketaren eguna. (+1 egun ibilbide bakoitzeko, 150 km baino urrunago bada eta joan etorria lehiaketa-egunean ez bada egiten).	Bai	E
Egonaldiak gauarekin konpentsatzeko	52	KPBO	Egun eta erdi, gau bakoitzeko eta 2 egun jaiegunetan bada (zuzendaritzarekin adostuta).	Bai	Z
Urte sabatikoa	53	KPB	5 urteko zikloak: lehen 4 ikasturteetan lan, eta bosgarrenean, sabatikoa. Bakantedunek, aurreko 5 urteetan ikasturte osoko plaza lortu eta hurrengo 5 urteetan ikasturte osoko plaza bat hartzeko konpromezuarekin.	% 84	H
<u>Ordaindu gabeko baimena</u>	54	KPBO	Kasu guztietan (d atalean izan ezik) bete beharreko baldintza: urte batez lanean aritzea. a) Ikasketa ofizialeko gehienez 4 hilabete, urtean behin. b) Garapen-bidean dauden herrialdeetako misioetarako gutxienez hiru hilabete eta gehienez bi urte, bost urtetik behin. c) Askatasunaz gabetzeko zigorrak betetzen ari direnei bisitak egiteko behar den denbora. d) Administrazio eta erakunde publikoetako kidego eta eskaletan, hautaprobetan parte hartzeko behar den denbora. e) Arrazoi pertsonaletarako ikasturte osoa edo 5 hilabete (iraila-urtarrila edo otsaila-ekaina), 5 urtean behin. f) Norberaren eginkizunetarako, gehienez 4 hilabete bi urtean behin.	Ez	E
Familia-arrazoi larriak	54 (bis)	KPBO	Familia-arrazoi larriagatik lanetik alde egitea beharrezkoa denean.		
Orduak murriztea (Lan akordio berrian jasota, baimen edo lizentzia kapitulutik kanpo dago)	55.1	KPB	1) Osasun arazoengatik lanaldiaren 1/3eko murrizketa (gehienez ere bi ikasturte).	Bai	H
	55.2	KPB	2) - Norberaren interesengatik urte osoko jardunaren murrizketa, lanaldiaren 1/3 edo 1/2 (gutxienez 1 urte. Eten ondoren, berriro eskatzeko 3 urte igaro behar). - Norberaren intereserako murrizketa 1/2koa bada, metatzeko aukera.	%	E
	55.3	KPB	3) Adinagatik lanaldia murriztea. Kontsultatu 18. orrialdea.	Bai	H
	55.4	K	4) Ikasketa ofizialak egiteko, lanaldiaren 1/3eko murrizketa.	%	E

Zehaztasunak: 2025-05-09an sinatutako lan akordio berrian. K: karrerakoek / P: praktiketakoek / B: bakantedunek / O: ordezkoek.

\* Gurasotasuna 13. orrialdean zehazten da. \*\* Edoskitzea 14. orrialdean zehazten da.

\*\*\* Gaixotasun larria edo heriotza 10. orrialdean zehazten da.

E: eizu / T: tramitagune / H: hezigunea / Z: zuzendaritza / I: ikuskaritza.

## Senideen gaixotasun larri edo heriotzagarriko lizentzia

Heriotza			
Senide mota	Gertaera non		
	Udalerrri berean	Beste udalerrri batean, 150 km baino gutxiagora	Beste udalerrri batean, 150 km baino gehiagora
Ezkontidea Seme-alabak	5 lanegun	5 lanegun	5 lanegun + 2 egun natural
Gurasoak Aitagin-amaginarrebak Suhirrainak			
2. mailako senideak Maila urrunagoko senideak, elkarrekin biziz gero	3 lanegun	4 lanegun	4 lanegun + 2 egun natural

Gaixotasun larria, ospitaleratzea edo etxean atsedean hartzea behartzen duen ospitalizazio gabeko ebakuntza		
Senide mota	Gertaera non	
	Udalerrri berean zein beste udalerrri batean	Beste udalerrri batean, 150 km baino gehiagora
Ezkontidea Izatezko bikotekidea Bizikideak Seme-alabak	5 lanegun	+ 2 egun natural
Gurasoak Aitagin-amaginarrebak Suhirrainak		
2. mailako senideak		

**Ebakuntza:** Ebakuntza: medikuaren ziurtagiriarekin egiaztatu beharko da.

**Etxean atsedean hartzea:** ebakuntzaren mediku-ziurtagiria + atsedena justifikatzen duen medikuaren txostena. Heriotzaren kasuan kontuan izan, beste udalerrri bat, langilearen bizilekua ez dena izango dela.


Adibideak:

Langilea Araian bizi da eta amona Gasteizen zendu da: 4 lanegun.

Langilea Gasteizen bizi da eta amona Gasteizen zendu da: 3 lanegun.

Ingresoagarriko baimena senidea ingresatuta dagoen bitartean hartuko da; eta baimena amaitu aurretik alta ematen badiote, baimena egun horretan amaituko da.

## Odol-ahaidetasunaren organigrama



## Eszedentziak eta Zerbitzu bereziak

Taulan agertzen diren eszedentzia eta zerbitzu berezi guztiak, gutxienez 10 laneguneko aurreabisua exijitzen dute.

Eszedentziak eta Zerbitzu bereziak	Art.	Nork	Iraunaldia	€	Eskaera
Norberaren interesagatiko borondatezko eszedentzia (destinoa galtzen da eta ez da antzinasunik sortzen)	141	K	Eskatzeko gutxienez 2 urtez eman behar dira zerbitzuak sektore publikoan. Eszedentzia gutxienez 2 urterako da (berriz eskatzeko 3 urte igaro behar dira).	Ez	T
Borondatezko eszedentzia lanpostu- eta destino-erreserbaduna (ez da antzinasunik sortzen)	142	K	Eskatzeko gutxienez 3 urtez eman behar dira zerbitzuak sektore publikoan. Eszedentzia 6 hilabete eta urtebete bitarteko izango da (berriz eskatzeko 3 urte igaro behar dira).	Ez	T
Senideak zaintzeko eszedentzia	144	KBO	Gehienez 3 urterako. Seme-alabak 3 urte egin arte edo 1. eta 2. mailako senideak zaintzeko, ez bada gai bere kabuz moldatzeko eta ez badu ordaindutako lanik egiten. Kontsultatu 12. orrialdea.	Ez	E
Sektore publikoan zerbitzuak emateko borondatezko eszedentzia	148	K	Eskatzeko zerbitzu aktiboan egon behar da. Egoera hori eragin zuen zerbitzu-harremanak diraun bitarteko iraungo du. Lanpostuaren erreserba eskubiderik ez dago. Kargua uzteko datatik aurrera, 20 egun natural daude zerbitzu aktibora itzultzea eskatzeko.	Ez	T
Zerbitzu bereziak	138	K	Artikulan jasotzen diren egoerak hartuko dira zerbitzu berezi gisa. Lanpostuaren erreserba eskubidea dago. Kargua uzten dutenetik aurrera, 20 egun natural izango dituzte zerbitzu aktibora itzultzeko.	Ez	T

Zehaztasunak: 2022-XII-26ko EHAA (138-148 artikulua). E: eizu. T: tramitagune.

	Eszedentzia (0-3 haurrak zaintzeko)	Eszedentzia (1go eta 2.mailako senideak zaintzeko)
Nork	Karrerako funtzionarioek, bakantedunek edo ordezko langileek*.	Karrerako funtzionarioek, bakantedunek edo ordezko langileek*.
Noiz eta zenbat denbora	Haurrak hiru urte bete arte eskatu ahal da. Zatituta hartu ahal da.	Gehienez hiru urte arteko eszedentzia. Zatituta hartu ahal izango da.
Lanpostuaren jabetza	Bai (gutxienez 10 laneguneko aurreabisua exijitzen dute).	Bai (gutxienez 10 laneguneko aurreabisua exijitzen dute).
Lanpostua gorde	Bai.	Karrerako funtzionarioei: Bai. Funtzionario interinoei/ordezkoiei: Kontratua bukatu arte bai.
Gizarte Segurantzari kotizatu	Bai.	Bai.
Antzintasuna	Bai.	Bai.
Puntuatu	Bai.	Bai.


\* Ordezko langileak: baldin eta lanpostuaren jabetza egin badute. Eszedentzia lanpostuaren izendapena etetean amaitzen da.

## 8 asteko guraso baimena (ordaindugabeak)

- Baimeneko 8 asteak, adingabeak 8 urte bete arte hartu ahal izango dira (ez dira urtekoak).
- Haurrak edo etxean hartutako adingabeak zaintzeko.
- Baimena zatika hartzekotan, gutxienez asteka hartu beharko da.
- Eskaera gutxienez 15 lanegun lehenago egin behar da.
- Eskaeran familia-liburua edo haurra Erregistro Zibilean inskribatu izanaren ziurtagiria zein jaiotza ziurtagiria erantsi beharko da.
- **8 aste hauetatik aparte, 2024ko abuztuaren 1etik aurrera jaiotako umeen kasuan, 2 aste ordainduta izango dituzte gurasotasun lizentziaren barruan. (2026ko urtarriletik aurrera hartuak baldin badira) EZ DIRA 8 ASTEKO GURASO BAIMENA BARRUAN DAUDEN ASTEAK.**

# Gurasotasun-lizentzia. Umearen jaiotze-dataren arabera, kasuistika ezberdinak

2024/08/02tik 2025/07/30era arte




\*Lan-akordio berria sinatu zenetik aurrera, haurra 2025eko maiatzaren 10etik aurrera jaiota bada.

**Gurasobakarren kasuan:** borondatezko asteak bikoiztu egiten dira, eta baita 8 urtera arteko asteak ere. Beraz, 12 aste gehiago dituzte.

$$6 + 20 + 2 + 2 \text{ (jarraian hartuz gero)} + 4$$

2025/07/31tik aurrera



**Gurasobakarren kasuan:** borondatezko asteak bikoiztu egiten dira, eta baita 8 urtera arteko asteak ere. Beraz, 13 aste gehiago dituzte.

$$6 + 22 + 2 + 2 \text{ (jarraian hartuz gero)} + 4$$

Infografia ulertzeko oharrak:

**Derrigorrezko 6 asteak disfrutatu ondoren,** borondatezkoek hasiera jarraian zein aurrerago eman ahal diozu. (honek ez du zure lizentziaren iraupenean eragingo).

**Borondatezko 11 asteak, jarraian zein etenekin disfrutatu ditzakezu.** Jarraiak diren kasuan, hezkuntza sailak 2 aste gehigarri emango dizkizu.

**Gizarte Segurantzaren azken astea** (6+11 = 17.na), kontratua izagatik haurra jaiotzean ematen dizkiguten 2 asteak, jarraian disfrutatzeagatik, borondatezko 2 asteak eta edoskitzea, jarraian disfrutatu behar dira.

Lizentzia hori beste **bi astez luzatuko da seme-alabaren aniztasun funtzional fisiko, psikiko edo sensoriala dagoenean, eta bigarrenetik aurrerako seme-alaba bakoitzeko**, erditze anizkoitza izanez gero. Bi aste horiek gurasoen artean banatuko dira eta besterenezinak izango dira.

Erditze goiztiarraren kasuetan eta, beste edozein arrazoiengatik, **seme-alabak ospitalean egon behar duenean erditzearen ondoren edo gehienez hogeita hamar eguneko epean, jaioberria egoera horretan dagoen adina egun luzatuko da lizentzia hori**, gehienez ere beste hamahiru astez.

**Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen 17 aste horietan** zehar, gurasoren bat baja mediku egoeran baldin badago, denbora hori berreskuratu egiten da.

# Gurasotasun-lizentzia eta gero, zer?

## Edoskitzea

Lanera bueltatzeko baldintzarekin bakarrik lortzen da edoskitze metatua. Ezin da besterendu, eskubide indibiduala da; bi gurasoen eskubidea.

Jaiotako haur bakoitzeko egunean ordu bat, urtebete izan arte. Proporzionalki luzatuko da erditze, adopzio edo harrera anizkoitza denean.

2 mota

### Metatua\*

(Gurasotasun-lizentziaren jarraian hartu behar da)

- > Funtzionarioek.
- > Praktiketako funtzionarioek.
- > Bakantedunek.
- > Amaiera-data duten ordezkapen luzeak dituzten ordezkoek\*\*.

Jardun mota	Ume bakarra	Bikiak edo gehiago
Osoa	28 lanegun	56 lanegun
Murriztua: 5/6	29 lanegun	58 lanegun
Murriztua: 2/3	36 lanegun	72 lanegun
Murriztua: 1/2	48 lanegun	96 lanegun
Murriztua: 1/3	72 lanegun	144 lanegun

**Oharra:** Lanegun batek 6 ordu ditu jardunaldi osoan.


### Metatu gabea

- > Hezkuntzako langile guztiek har dezakete.
- > Egunean ordubete har daiteke, edo ordu erdiko bi zati (betiere lehen edo azken orduetan).
- > Lizentzia osoa bukatu eta gero edo nahitaezko zatia amaitutakoan har daiteke.
- > Ikastetxeko zuzendaritza-taldearekin adostu behar da.
- > Jaiotza anitzen kasuan, egunean bi ordukoa da lizentzia, edo ordu bateko bi zatikoa.


\* Kalkulua ondo egin ahal izateko, edoskitze metatua eskatzerakoan, eskatzaileak jakinarazi beharko ditu umeak 12 hilabete bete arte hartuko dituen lizentzia, baimen, hartu gabeko opor eta eszedentziak.

\*\* Ordezkapenen adibideak: jubilazio baten ordezkapena, ziurtatu dezakezun epe luzeko ordezkapenetan.

Edoskitze metatua eskatzeko asmoa duenak, gurasotasuneko asteen antolaketarekin batera zehaztea komeni da.




## Ordezkoak



### Suerta daitekeen kasuistika, adibideak:

- > Ikasturte hasierako esleipenean ikasturte osoko plaza bat lortu duten bitarteko langileen kasuan, eta iraileko lehen lanegunean plaza hori jabetzan hartu ezin badute, gurasotasun egoeran, ezintasun iragankorreko egoeran edo beste ezinbesteko arrazoi batzuegatik, dagokion instrukzioan zehaztuko direnak, esleitutako plaza erreserbatzeko eskubidea izango dute, hala eskatzen badute, esleipenari dagokion ikasturteko azaroaren hogeita hamarrera arte. Zirkular horretan ezarritako epe eta prozeduren arabera sartuko dira.
- > Kontratupean EZ egonda haurra jaiotzen bada, ordezlagunean lan egoera aldatu egin behar da. Lanerako prest dagoen langilea, lanik egin gabe, umea jaiotzen da, eta "babestutako egoera" aktibatu behar du.
- > Gurasotasun-lizentziak iraun bitartean eta "babestutako egoeran" egonda, ordezkoak ezingo du ordezlagunean parte hartu.

## Haurdunaldia



## Erditzeko unea

### 17 asteko baimena kobratzeko eskubidea izateko egoerak:

- Haurra jaio den egunean lanean egotea.
- Haurra jaio den egunean bajaran eta prestazioa jasotzen egotea (kontratu amaituta).
- Haurra jaio den egunean langabezian egotea.


### 19 (17+2) asteko baimena kobratzeko eskubidea izateko egoerak:

- Haurra jaio den egunean lanean egotea.
- Haurra jaio den egunean bajaran egotea (kontratupean).

### 21 asteko baimena kobratzeko eskubidea izateko egoera:

- Haurra jaio den egunean lanean egotea edo bajaran egotea baina kontratupean eta "borondatezko asteak" jarraian disfrutatzea (beti ere haurra 2025eko maiatzaren 10etik aurrera jaio bada).

# Zer egin lan-istripu baten aurrean



**Jakinarazpena:** Bai Hezkuntza Saileko langileen bai zentroan dagoen beste edozein langileren lan-istripuen berri emango da, bajadun edo baja gabekoa izan arren. Hezkuntza Saileko langilen istripuak LAPZri eta Ordezkaritzari jakinaraziko zaizkie beti; beste langile batzuenak berriz, LAPZri bakarrik.

Premiazko jakinarazpen kasuan, 24 ordu baino lehen [lakuaprebentziohezkuntza@euskadi.eus](mailto:lakuaprebentziohezkuntza@euskadi.eus) helbidera jakinarazi behar da. Jakinarazpen horrek ez du salbuesten ondorengo ohiko jakinarazpena, formulario bidez egitetik.

**Zer da lan-istripua?**  
Langileak, lanean ari dela edo lanaren ondorioz, jasan dezakeen edozein gorputz-lesio.

**Lan-istripuen barruan, "in itinere":**  
Istripuzat joko da langileak lantokirako joan-etorrietan jasan dezakeena.

**Zer da intzidentzia?**  
Edozein jardueratan aritzean eman daitekeen edozein egoera, lesiorik eragin ez, baina lesioak eragin ditzakeena. (Segurtasuneko laguntzaileari komunikatu eta erregistratu behar dira).

**Gaixotasun profesionala:**  
Irakasleon kasuan, noduluak besterik ez.

**Lan-istripua, baja eragiten duena:**  
Lan-istripua baten ondorioz, baja hartu behar izan bada, lansariaren % 100 kobratuko da.

# Adinagatiko irakastorduen murrizketa

ZEIN MODALITATE NAHI DUZU?

**EZ METATUA**

**METATUA**

(gehienez urte 1 eta 6 hilabete)

**ZER DA?**  
Adinagatik irakasleek izan dezaketen irakastorduen murrizketaren baimena.

Murrizketa disfrutatu ahal izateko, ordezkoa egon behar da. Bestela, Hezkuntza Sailak baimena ukatuko du.

Gizarte segurantzako araubideko karrerako/bitarteko funtzionarioa edo lan-legepeko \*kontratua izatea.  
**\*Beti ere erretiro partziala ezarri ezean.**

15 urte jarraian edo 20 etenekin EJKo ikastetxe publikoetan erretiroa hartzeko momentuan. Gizarte segurantzako araubideko karrerako/bitarteko funtzionarioa edo lan-legepeko \*kontratua izatea.  
**\*Beti ere erretiro partziala ezarri ezean.**

**ZER DA?**  
Adinagatiko murrizketak metatuta gozatzeko baimena, erretiratu arte.

Lanaldi murriztuan: egiten den lanaldiarekiko proportzionala den aldia metatzen da.

**Eskaera:**  
Adina bete baino 10 egun natural lehenago eskatzea komeni da egunik ez galtzeko, **urtero eskatu behar da** (ez metatuaren kasuan). Metatua behin eskatuta ez delako berriz eskatu behar.

**Baldintza:**  
Modalitate bat eskatu ondoren, hurrengo deialdietan ezin izango da modalitatez aldatu (salbuespena 59 urtekoa).

Salbuespen gisa 2025-26 ikasturtean eta hurrengo 5 ikasturteetan, metatze aldian urte bakoitzeko gehienez 4 hilabetekoa izango da.

Zenbat urte dituzu?

Zenbat urte dituzu?

59 urte (maisua-maistrak soilik)

60-64 urte

65+urte

Hezkuntza publikoan lanean 15 urte jarraian edo 20 urte etenekin eman dituzu?

59 urte (maisua-maistrak soilik)

60-64 urte

65+urte

Irakastorduen 2 orduko murrizketa.

Irakastorduen 1/3 murrizketa erretiroa hartu arte.

EZ

BAI

Irakastorduen 1/2 murrizketa erretiroa hartu arte.

Irakastorduen 2 orduko murrizketa metatzea erretiratu baino lehen. Gehienez 3 hilabeteko aldia metatu ahal izango da.

Urte bakoitzeko gehienez 4 hilabeteko metaketa. Hiruhileko bakoitzeko hilabeteko metatzea (gehienez ere 18 hilabete). Disfrutea: lehenengo hiru-hilabetea\* edukien erretiratu transmisiorako, gainontzekoa uztaileko izaerarekin, eskolara bertaratu beharrik gabe.  
**\* Metatutako aldia 8 hilabete edo gutxiago bada, transmisiorako aldia 2 hilabetekoa. 4 hilabete edo gutxiago metatu badira, transmisiorako hilabete.**

Murrizketa ordezkatzeko ezarri ditzaketen funtzioak: guardiak, ordezkapenik sortzen ez duten irakasleen ordezkapenak, zeregin osagarrietan laguntzea, proiektu-orduak, jantokiko arduraduna, epaimahaietan parte hartzea, hizkuntza-eskola ofizialetako azterketak zuzentzea, etab.  
Behin eta berriro salatu dugu irakastorduen murrizketak ordezkatzeko ez dela bidezkoa arreta zuzena eskatzen duten funtzioak ezartzea!

## Metatutako modalitateko adibideak:

**1.** Bigarren Hezkuntzako langile batek 2030eko abenduaren 31ean erretiratzea erabaki du 64 urte eta 8 hilabeterekin. Eskaera 60 urte bete dituenean (2026ko apirilaren 30ean) egin du ordu murrizketa metatua disfrutatu ahal izateko (apirilaren 30ean). Beraz 4 urte eta 8 hilabete ditu metatzeko. Horren ondorioz, gehienezko metatze aldia gainditu duenez, 18 hilabete pilatuko ditu. Hau da, 63 urte eta 2 hilabeterekin bere irakastorduak utziko ditu (ekainak 30ean), hiru hilabete jakintzaren transmisiorako eta erretiro adina iritsi arte uztaileko izaera izango du.

**2.** Lehen Hezkuntzako langile batek 2030eko ekainaren 30ean erretiratzea erabaki du 63 urterekin. Eskaera 60 urte bete dituenean egin du ordu murrizketa metatua disfrutatu ahal izateko (ekainaren 30ean). Ondorioz, 12 hilabete metatu ditu. Aurrez, 59 urterekin, 2 orduak metatzea erabaki zuenez, beste 3 hilabete metatu ditu. Horren ondorioz 15 hilabete ditu metatuta, horietatik 3 hilabete jakintzaren transmisiorako izango direnak. Hau da, 61 urte eta 9 hilabetetara (2029ko apirilaren 1ean) bere irakastorduak utzi, hiru hilabete jakintzaren transmisioan eman eta erretiro adina iritsi arte etxean egongo da uztaileko baldintzatan.

**3.** Lanbide Heziketako langile bat 67 urterekin erretiratu beharra du 2034ean eta eskaria 60 urteak betetzen dituenean egingo du. Beraz, 18 hilabeteko topea izango du metatzeko. 65 urte eta erdirekin bere funtzioak utziko ditu. Ez du Jakintzaren transmisiorik egin beharko eta 65etik aurrera irakastorduen erdiak soilik izango ditu.

Adibideak	Eskaera	Metatuko aldiaren hasiera (transmisioa + etxera)	Erretiroa
1	2026/04/30 (60 urte)	2029/06/30 (63 urte eta 2 hilabete)	2030/12/31 (64 urte eta 8 hilabete)
2	2026/06/30 (59 urte) 2027/06/30 (60 urte)	2029/04/01 (61 urte eta 9 hilabete)	2030/06/30 (63 urte)
3	2027 (60 urte)	2032 (65 urte eta 6 hilabete)	2034 (67 urte)



## Nominak: 2025-2026

Nominaren kontzeptuak lau multzotan sailka ditzakegu, hobeto ulertzeko:

- A.** Denok kobratzen ditugun kontzeptuen kodeak: 1000, 2004, 2103 eta 2108.
- B.** Antzinasun-kodeak: 1020, 1027, 2130, 2135 eta 2140.
- C.** Kargu-kodeak: 2145 (mota ezberdinak daude kode honekin).
- D.** Maisu-maistren gehigarrienak (DBH/EPA): 2640 eta 2146 kodeak.

## Sortzapenak

Nominari dagokiona (eurotan eta hilabetero)			
Kodeak eta kontzeptuak	Maisu-maistrak	LHko Sektore Berezietako irak.	BH/HEOko irak.
1000 Soldata		1199,52	1387,24
1020 Antzinasuna (hirurtekoak)		43,54	53,39
1027 Oinarrizko aldea (hirurtekoak)		9,20	10,48
2004 Lanpostu-mailako osagarria	701,21		880,08
2103 Berariatzko Osagarria	756,38	992,82	858,63
2108 CE Kapitalizazioa		316,75 (denok kobratzen dugu)	
2130 CE 1er grado esp. Ded.		96,81 (6 urteko zerbitzuak izanez gero)	
2135 CE 4º grado esp. Ded.		57,74 (24 urteko zerbitzuak izanez gero)	
2140 CE 5º grado esp. Ded.		47,86 (30 urteko zerbitzuak izanez gero)	
2145 CE Adic. Cargo-Tutorea		71,34	
2145 CE Adic. Cargo-Koord.	64,84		
2145 CE Adic. Cargo-Mintegib.	64,99	64,28	93,13
2145 CE Adic. C. Zuzendaritza		(Gela, ikasle edo irakasle kopuruaren arabera)	
2640 CD Adic. Maisu-Maistra DBH	178,87		
2146 CD Adic. Maisu-Maistra EPA	80,14		

## Azalpenak GSko kotizazio-oinarrien atalean

- Siglak: **LI** Lan-istripua  
**LG** Lanbide-gaixotasuna  
**AT** Accidente laboral  
**EP** Enfermedad profesional

### Atxikipenak (deskontatzen dutena):

**Denok:** 401 PFEZren gaineko atxikipena (IRPF): sortzapenen ehuneko bat da. Urtean behin, langileak urte horretarako ehunekoa igotzeko eska dezake.

**GSkoek:** 350 Trab. cont. comunes: erretirorako eta osasun-asistentziarako kotizazioak. Sarrera gordinen % 4,83.  
370 Trab. desempleo (bitarteko funtzionarioek soilik): sarrera gordinen % 1,55.  
380 Trab. formac. profesional: sarrera gordinen % 0,1.

**MUFACEkoek:** 9360 Eskubide pasiboak: erretirorako kotizazioa.  
9350 MUFACE: osasun-asistentziarako eta prestazioetarako kotizazioa.

### Aparteko ordainsarrietan (ekainean eta abenduan):

- Oinarrizko aldea (1027) ez da kobratzen.
- Oinarrizko soldataren (1000) eta hirurtekoen (1020) % 61,7 (A1 taldekoek) eta % 72,9 (A2 taldekoek) jasotzen da.
- Beste kontzeptuak berdin kobratzen dira.

## Lotura interesgarriak

### Irakasleen lan akordio eta bestelako dokumentuak

Lan akordio  
orokorra



Kontutan izan oraindik  
ez dagoela bere  
osotasunean indarrean

Lizentziak  
eta baimenak



Ikasturte hasierako  
ebazpenak



### Ordezkoen araudia

Ordezkoen araudia  
(2023-11-18ra arte)



Titulazioen eta  
espezialitateen taula  
(III. eranskina)  
(2023-11-18ra arte)



Araukak



Ordeztaguneko gida



### Zerrenden osaketa eta kudeaketa

Zerrenda gehienak  
irekita!




Zerrendetan on-line  
izena emateko gida



Ohar garrantzitsuak





steilas



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
[araba@steilas.eus](mailto:araba@steilas.eus)

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
[bizkaia@steilas.eus](mailto:bizkaia@steilas.eus)

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
[gipuzkoa@steilas.eus](mailto:gipuzkoa@steilas.eus)

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
[nafarroa@steilas.eus](mailto:nafarroa@steilas.eus)



**Irakasleen eskuliburua**  
EAEko irakaskuntza publikoa  
2025-2026  
(2026ko urtarrilan eguneratua)